




1836  
Su biren artean



Antzerki  
ikuskizuna

Jokin de Pedro, 2022



## PERTSONAIAK

<p><b>JOANA</b> Ostalaria</p>	<p>Marinel baten alarguna. Aita eta osaba aurreko gerretan hilak. Errenta ordaintzeko larri ibiltzen da. Uneko gerraren bi aldeez, guztiz eszeptiko. Aberatsak eta txiroak, beste bereizketarik ez du ikusten munduan.</p>
<p><b>PATAKON</b> (Manuel Antonio Madariaga) Bandoleroa</p>	<p>Egiazko pertsonaia. 1796an Larrabetzun jaio eta bertan bizi izana. Bidelapur hasi 1820an. Hasieran, errementaria ogibidez. Andre alargunen eta maizterren aldekoa beti. Jende arrunta alde izaten zuen. Zaldiaren ferrak atzekoz aurrera jarri ohi zituen, ihesean arrastoa galdu ziezaioten. "Pedrobizer" lapur-laguna izaten zuen. Eskolatua, irakurtzen eta idazten zekien. Bilboko kartzelan hiru urte, 1828an handik ihes egin arte. 1829an haren deskribapena zabaldu Bizkaiko poliziak: "ez handi ez txiki, gorputz sendoko, panazko jantzia, txaleko gorrixka, zilarrezko edo antzeko botoiez, larruzko botak eta manta bat lepo gainetik". "Perumalo" izeneko laguntzailea zeukan, berriemalen; honen emaztea Larraurain zegoen, eta Patakonen andralaguna zen, baina handik erbesteratu zuten Plentziara, haurdun zegoela, zuen ospe txarragatik. 1830ean hamar urteko kartzelara kondenatu zuten, baina gerra garaian indultoa eman zioten, errealisten alde borrokatu zuelako. Bere armak: karabinak, trabukoak, kanoi moztuak, labana... Lapurreta gehienak toki menditsuetako errepideetan, besteak beste, Unbe-Bizkargi inguruetan; baita apaizen eta aberatsen etxeetan ere. Tabernak eta ostatuak izaten ziren bandoleroen biltoki, informazio gune eta taldea osatzeko leku.</p>
<p><b>DON PEDRO</b> Administratzailea</p>	<p>Marqués de la Torrecillaren administratzailea. Eskualdean honek dituen higiezinetatik ibiltzen da errentak kobratzen.</p>
<p><b>ALDARRIKARIA</b></p>	<p>Atabal-hotsa lagun, uriko aldarri ofizialak egiten ditu.</p>
<p><b>GOBERNADOREA</b> (Plentziako Gobernadore militar liberala, Esparterok jarria)</p>	<p>Egiazko pertsonaia, haren izenik ez dakigun arren.</p>
<p><b>ALKATEA</b> (Nikolas Urrutia) Plentziako alkate liberala</p>	<p>Egiazko pertsonaia</p>
<p><b>PATXI</b> Soldadu liberala1</p>	<p>Bizkaitarra</p>
<p><b>MANEX</b> Soldadu liberala2</p>	<p>Lapurtarra</p>
<p><b>SOLDADU Liberala3</b></p>	<p>Bertsoa kantatzen du</p>
<p><b>SOLDADU Liberala4</b></p>	<p>Bi aldiz azaltzen da, eskolta edota berriemalen gisa</p>
<p><b>PANTXIKE</b> (Francisca González) Komandantea</p>	<p>Egiazko pertsonaia. Emakumeen miliziaren edo <i>Urbanen</i> burua.</p>

<b>VIRGINIA</b> (Virginia Sabater) Komandantearen laguntzaile	Egiazko pertsonaia. Joskilea. Ahizpa Rufina Frantzian izandakoa. Aita marinela, ama bordatzailea. Ideologia liberalari atxikia
<b>PERREJIL</b> (Francisca Musaurieta) Soldadua	Egiazko pertsonaia. Marinelaren alaba. Zamaketaria eta alogerekoa. Sutsua, ausarta, zirtolaria eta lotsabako samarra. Urte batzuk geroago hainbat auzi judizialean azalduko da
<b>PEDRO</b> (Pedro Antonio Arekoetxea) Miliziako kapitaina	Egiazko pertsonaia. Gizonezkoen miliziaren edo <i>Urbanoen</i> burua
<b>EGIA jenerala</b> (Nazario Egia) Armada karlistako burua	Egiazko pertsonaia. Durangon jaioa 1777an. Zumalakarregi hil zenean hartu zuen armada karlistaren buruzagitza. Gerra askotan zaildua. Izaera latzekoa. Atentatu batean (bonba-gutuna) esku bat osorik eta bestearen atzamar batzuk galdu zituen. Gizarte eta ordena tradizionalaren aldekoa erabat.
<b>TENIENTEA</b> (Teniente karlista)	Kapitulazioaren testua irakurtzen du
<b>SOLDADU Karlista 1</b>	Bertsoa kantatzen du
<b>Soldadu karlistak</b>	Bertsoaren bukaera kantatzen laguntzen dute

## LEHEN AGERRALDIA

*(Plentziako kalean, ostatu bateko atarian. Pare bat mahai daude, saskel samarrak. Soldadu liberal bi erretiran doaz, ardoak nabarmen txolinduta. Handik lasterrera, albo batetik gizon misterioitsu bat sartzen da, ondo jantzia. Inor ez dagoela ikusirik, deika hasten da. Laster emakume heldu bat irteten da, mantala jantzita)*

PATAKON: Ba al da inor? Eup, arratsalde on!

JOANA: Soldaduak ostera be! Itxita dago ostatua! Nahiko edan dozue nire kontura.

PATAKON: Ez naz soldadu.

*(Ostalaria begira geratzen zaio, harriturik. Gizonak, kapela dotore erantzita, adeitsuenez agurtzen du:)*

PATAKON: Arratsalde on Jaungoikoak degizula, andrea.

JOANA: Halan ekarri, jauna. Parkatu moduengaitik, soldadu mozkorti lotsabako horreek ziralakoan nengoan...

PATAKON: Ostatu bila nabil, andra galant hori. Hau ete da...?

JOANA: Bai, aurrean dozun bera. Eta neu ostalaria. Zer gura dau berorrek?

PATAKON: Ba, oraintxe bertan tragu luze bat. Samasikua daukat eta nekea be bai. *(Jesarri egiten da)*

JOANA: Laster naz hemen kuartillo bete ardaogaz. Jateko zeozer be ekarriko jako, gauza handirik ez daukat baina...

PATAKON: Dakarzun edozer ondo etorria eta atseginez hartua izango da, ene andrea.

*(Ugazabandrea barrura sartzen da. Laster ardoa eta gazta dakartza, ogi zati batekin)*

JOANA: Hemen dauka berorrek. Samasikua kendu eta sabel-zorria hilteko behintzat balioko ahal deutso!

PATAKON: Balioko dau, zalantzarik ez *(Jan-edanean hasten da, gogotsu)*. Ez naizu berorika berba agin, baina. Ez naz korrejidorea, ezta abadea be.

JOANA: Gura dozun moduan. Ostatu honetara datozenak ez dira holan jantziten, errejidoreak edo handi-mandiak ez badira...

PATAKON: Ba, ni ez nozu horretarikoa, andra laztan hori.

JOANA: Zer zaitut, ba? Esan gura dot, atrebentzia handia litzateke itandutea zein dan zure... beharra?

PATAKON: Nire beharra? Ba, esan daigun ehiztaria nazela.

JOANA: Ehiztaria... Kapapean daroazun eskupeta horregaz egiten dozu ehizan?

PATAKON: Bai, gehienbat. Mmm, begi zolia dauka gure dameak.

JOANA: Eta... zein txori edo patari mota botetan dozu?

PATAKON: Uj, askotarikoak: zozoak, pospolinak, oilarrak (basoilarrak), mmm... belabaltzak, mozoloren bat edo beste... adardunak baztertu barik.

JOANA: Ehiza mota arraroa zurea, Jaungoikoarren, horretatik bizi ahal izateko.

PATAKON: Egin daigun berba zutaz, dama polit hori. Zein dozu izena?

JOANA: Nik izena? Joana.

PATAKON: Ezkondua zara?

JOANA: Alarguna. Gizona marinela zan. Itsasoak eroan eustan.

PATAKON: Marinelaren andrea goizean senardun, arratsaldean haurdun, gauean alargun.

JOANA: Ni goizetik gauera pasau nintzan artezean, mundura umerik ekarteko denborea emon barik.

PATAKON: Horren faltea daukazu, ume batena?

JOANA: Umeen faltea nik? Zertarako? Mutila izanez gero gerran hiltzeko, gure aitaren eta aititaren moduan? Eta neskea bada, gerraren penak, lotsak eta estutasunak jasateko? Mundu honek ez dauka atarramendu onik, jauna. *Zer egingo dogu? Hil artean bizi*, esaten eban amamak. Aitite-amamen sasoian Napoleonen gerrea; aita-amen sasoian, realistena... eta orain? Orain okerrena: Isabelen aldekoak eta Carlosen aldekoak borrokan Euskal Herrian. Espainiako tronuan noren eperdia dagoan hain inportantea ete da euskaldunontzat alkar hiltzen jarduteko? Beti-beti bizi behar ete dogu gerran? Ez ete da hori gizonek beharrezko daukien zeregin bat? Sargentuak, jeneralak, soldaduak... ikusten dodazenean, bai baltzak, bai txapeldunak euren uniforme eta oilarkeria guztiagaz higuina emoten deuste. Solora bialduko neukez danak behar egiten, soloei eta baserriei su emoten ibili beharrean. Edo itsasora arrantzan, arrantzaleen txalupak bonbakatu beharrean. Holan zer jana emongo leukie. Baina ez, hor ibili behar jende pobre guztiari gura dabena konfisketan!

PATAKON: Zu ez beste plentziarrak eritxi horretakoak dira?

JOANA: Ez horixe. Uri hau, Plentzia, liberalen eskuetan da orain, Espartero sartu zanetik hona. Jendea gertu dago balizko eraso baten aurrean defendituteko. Miliziak eratuten dabilz: urbanoak... eta laster urbanak be bai, erreginaren soldadu gitxi dagoz-eta.

PATAKON: Urbanak? Andrazkoak be armak hartuta?

JOANA: Bai, jauna.

PATAKON: ikusten dodanetik zuk ez dozu karabinarik hartuko.

JOANA: Ez horixe. Orain dagozanek gura dabena kentzen deuskue tropari emoteko. Eta datozenek beste horrenbeste egingo dabe. Ez dot ez bataren ez bestearen alde neure odola isuriko, ezta inori isuriarazoko be. Eta zuk, gizona izanik, batzuen edo besteen alde egin beharko dozu gerrea, behartuta bada be.

PATAKON: Jakingo dot bazterrean lotuten. Ni ehiztaria nozu. Txori eta patariakaz ikasi dot zelan gorde basoan, dama galant hori.

JOANA: Dama, dama... sekula ez deuste holan esan. Badakizu ni arrantzale eta arrainsaltzaile familiakoa nozula damea izateko!

PATAKON: Arrain sundeak ez dau ezabatuten damatasuna.

JOANA: Zuk esaten badozu...

PATAKON: Zera, badozu ehiztari honentzako oherik zure ostatuan?

JOANA: Baita. Segiduan atonduko jatzu *(Barrurantz egiten duenean, Patakonek geldiarazten du)*

PATAKON: Ez dago presarik. Hartu egizu kuartillotxu bat nire konpainian *(Bere ondoan esertzeko keinua egiten dio).*

JOANA: Ni ez naz jesartzen bezeroakaz. *(Barrura doa. Handik lasterrera, Patakon ere sartzen da ostatu barrura)*

## **BIGARREN AGERRALDIA**

*("Dotoreegi" jantzitako gizon bat hurbiltzen da ostatuko atera)*

DON PEDRO: ¡Joana! ¡Joanaaa! *(Atean jotzen du azkozkorrez)* ¡Ah de la casa! ¡Sal afuera de una vez, soy Don Pedro!

JOANA: Ya vengo. ¿Qué querer, don Pedro?

DON PEDRO: *(Aldarte txarreko)* Bien sabes lo que quiero, gandula. Me debes tres meses de la renta. Si no me vuelvo hoy con el dinero, ya estas haciendo la maleta.

JOANA: Dos semanas darme para pagar, Don Pedro. Malos tiempos son. A la trropa mantener hasemos las mujeres todas.

DON PEDRO: Malos tiempos, malos tiempos para todos, déjate de coplas. Voy a Barrenkale a cobrar otras rentas, que Dios sabe si la semana que viene las podré cobrar. Hay soldados por todos sitios, cualquier día se arma la gorda aquí mismo en Plencia. Bueno, cuando vuelva quiero el dinero en la mano. Vete mirando debajo del colchón, ¡a mí no me engañas!

JOANA: Pero...

DON PEDRO: No hay peros, que no están los caminos para andar perdiendo el tiempo. Gero arte! *(Badoa)*

*(Tabernaria etsia hartuta geratzen da, eskuak aurpegira eroanez)*

JOANA: Ene ama, zer egingo dot orain?

PATAKON: Parkatu, baina entzun dot handiki horrek zer esan deutsun. Zenbat eskatu deutsu? Zerenbestekoa da zorra?

JOANA: Ehun errealekoa!

PATAKON: Eutsi *(zakutxo bat eskuratzen dio)*.

JOANA: Zer da hori?

PATAKON: Honegaz zorra kitatuko dozu. Trankil egon, inoz nire patrikara bueltauko da-eta.

JOANA: *(Harriduraz)* Ezingo deutsut bueltau denboratxo batean, baina zin dagizut udabarrirako eukiko dozula, gitxienez erdia...

PATAKON: Ahaztu hori, laztana, ez arduratu. Nik ez dot behar diru hori. Baina trukean behar txiki bat egin beharko deustazu...

JOANA: *(Haserre antzean)* Zein behar mota? Orain ulertuten dot: hasieran *dama* hemendik eta *dama* hortik eta orain diru hau emonda, nire faboreak erosi gura deustazuz!!! Ba, sartu egizu zeure zakutoa zereko zeretik...!

PATAKON: Et-et, txarto ulertu deustazu, Joana. Agure zahar bategaz bardin jokatuko neuke. Nik... dirua daukanagandik ez daukanagana, eskuz aldatzen dakit. Hori da nire beharra. Ez zagoz zorretan nigaz. Ganera, *(kapela erantzi eta gur bat eginez)* gauza batzuk ezin dira erosi.

JOANA: *(Baretuta)* Orduan zein da egin behar dodan behar hori?

PATAKON: Itandu Don Pedrori noiz abiatuko dan eta zein bidetik joko dauan.

JOANA: Zuk zeuk itandu zeinkio hori.

PATAKON: Hara, lagun zaharra dot eta ezusteko bat emon gura deustat, nire lagun batzuekin batera. Informazioa daukazunean esan egistazu.

JOANA: *(Oso ondo ulertuko ez baleu legez)* Ondo da. Hori bada guztia, ataza erreza jarri deustazu ehun errealen truke.

*(Don Pedroren ahotsa entzuten da. Patakonek ostendu egiten da. Kobratzailea zur eta lur geratzen da errenta osoaren dirua ikusita. Joan baino lehen, Joanak ateratzen dio Patakonek eskatutako informazioa. Gero Patakonek doa. Honek adio egiten dio adeitsuki eta badoa bera ere. Hau guztia mimika bitartez egin bedi)*



## HIRUGARREN AGERRALDIA

*(Atabal-hotsez lagunduta tarteka, aldarrika azaltzen da gizon/emakume bat, mezu bat, aldarri bat, ozenki errepikatuz):*

ALDARRIKARIA: Gobernadore militarren aginduz, eta ikusirik tropa karlisten hurbiltasuna, dei egiten jake Plentziako eta Gorlizko emakume guztiei, era boluntarioan uriko milizian parte hartu dagien Plentziaren defentsarako. Emakumeen batallonia osatu gura dabena egon daitezala bihar egunsentian Plentziako plazan... Gobernadore militarren aginduz...

*(Aldarria entzun-ahala, emakumeak tarteka, banaka edo binaka, azaltzen eta hurreratzen dira, jakinguraz, entzun dutena elkarrekin komentatuz. Batzuk umeekin datoz. Aldi berean, soldadu liberal bi, uniformeak sartzen dira tabernarantz eta aldarria entzuten dute. Mahai batera jesartzen dira. Emakume multzo gero eta handiagoa batzen da, elkarriketa bizian. Gero erretiratu egiten dira eta soldadu biak tabernako mahaian geratzen dira, bakarrik)*

PATXI: Entzun dok, Manex? Andrak be soldau! Hamaika ikusteko jaio gozak!

MANEX: Ez duk hain gauza harrigarria, Patxi. Arrantzale eta marinelen herri batean gaudek. Hemen emazteak kudeatzen ditik ondasunak, badik indarra eta agintea. Armak hartzeari ere ez zioz beldurrik, bixtan da! Laster galtzak ere kenduko zizkigutek marimutil horiek!

PATXI: Heu be kostaldekoa haz...

MANEX: Bai, Donibane Lohitzunekoak. Hango emazteak ere zirzartekoak dituk. Pentsa: Frantziako Erreboluzioaren ondoren, Pariseko Asanbleak presunen eskubideen deklarazio bat egin zian, bena emazteakien "eskubideak" (*hitza ironiaz markatuz*) ez omen hituen jasoak, ez denak behintzat. Gure herriko emakumeek, ene ama-izebak barne, gutun bat igorri ziaten Pariserat, emazteen eskubide horiek jasoak izan zitezen, hala nola bozka ematekoa.

PATXI: Emakumeak botua emoten? Zer dok hori? Ta Erreboluzinoak errazoa emon eutsien?

MANEX: Bai zera! Parisek dena ukatu. Liberalismak ere baditik bere mugak.

PATXI: Hori ba! Ganera, gerrea gizonen zeregina dok.

*(Beste soldadu batzuk sartzen dira, algaraka. Patxi eta Manexekin barreka eta aupadaka ekiten diote)*

PATXI: Etxekandrea, atara azunbre bat ardao!

JOANA: Atzokoa kobrau barik daukat ondino!

PATXI: Apuntau! Danaren tasasinoa egiten da, badakizu. Dirua bueltatuko jatzu... gerrea irabazten dogunean.

JOANA: Gerrea zuok irabazi zein besteek irabazi, guk galdu egiten dogu, herriak beti galdu!

*(Joanak pitxerra mahai gainean uzten die, zakar, aldarte txarrarekin. Soldaduetako bat kantuan hasten da, gainerakoek adoreturik eta kantaren azken lerroak errepikatuz):*

SOLDADU L3:

Pasaira heldu omen da  
Don Carlosen konboia  
lastozko barkuak ta  
zurezko kanoiak  
garbitu behar al zioz  
kanaleko lohia  
bestela nola pasa  
holako armazoia

Karlistak egin dute  
lastozko zubia  
handikan pasatzeko  
bera ta nobia  
pasatzen hasi eta  
erori zubia  
karlistak hartu dute  
sentimentu handia

*(Barre-algaren artean edateari ekiten diote denek. Baina laster bestelako astrapala bat entzuten da. Don Pedro bi soldaduk heldurik sartzen da, zaratotsean. Azpiko arropa baino ez dauka soinean)*

DON PEDRO: ¡Llévenme donde el Gobernador, quiero hablar con el Gobernador!

*(Beste aldetik azaltzen da Gobernadorea. Bitartean, edaten zeuden soldaduak isilean erretiratzen dira, hura ikusita)*

GOBERNADOREA: Zer da astrapala hau? *(Bekozkoa jartzen die soldaduei, hauek erretiran doazela)* Nondik urten dau txorijagole horrek?

SOLDADU L4: Jauna, gizon honek urira sartu gura eban, baina ez dauka pasaporterik... ezta beste ezer, ikusten dozunez. Unbeko bidean lapurretan egin deusiela dino.

DON PEDRO: Me han robado, Señoría, me han quitado todo. Yo soy Don Pedro de Orbegozo, administrador de las propiedades del Marqués de la Torrecilla, séptimo nieto de Ana Manrique de Butrón y Mujika, hermana de la madre...

GOBERNADOREA: ¡Basta! ¿Alguien conoce a este sujeto?

JOANA: Nik bai, jauna. Ondo ganera. Es el que dise ser. Semana pasada estar aquí en Plentzia cobrando rentas.

DON PEDRO: ¡Dios te bendiga, Joana! ¿Ven como es verdad todo lo que les he dicho?

GOBERNADOREA: Cuénteme lo que le ha pasado, pero con brevedad. Estamos fortaleciendo la villa, los carlistas se acercan, o sea que no tengo tiempo para estas... menudencias.

DON PEDRO: ¿Menudencias dice, menudencias? Señoría: iba yo subiendo hacia Unbe y en esto que me sale al camino un señor de modales exquisitos, rogándome que me baje del caballo y me despoje absolutamente de todo. Yo pensaba que era una broma... ¡hasta que otro bandolero me puso un trabuco así de gordo en la cara! ¡Ene ama, casi me muero del susto!

GOBERNADOREA: Está bien, está bien. Haga usted una declaración por escrito con todos los detalles posibles. El teniente le atenderá. Ha sido usted víctima de Patakon.

DON PEDRO: ¿¿¿Patakon???

GOBERNADOREA: *Patakon: dekonari kendu, ez dekonari emon.* Es lo que dicen de él. Si le sirve de consuelo, la mitad de sus ganancias estarán ya en manos de gente humilde. Es difícil echar mano a un bandolero que ayuda a los pobres. Le protegen.

DON PEDRO: Pero, pero...

GOBERNADOREA: Emon jantziak gizon honi eta eroan tenienteagana. Harresira joan behar dot. Eta zuk, Joana, ez ete dozu euki tabernan gizon arrotzen bat susmagarria?

*(Joana zur eta lur geratu da Patakon nor den ohartu denean, baina isilean gorde du)*

JOANA: Nire tabernara jende ondrea etorten da... soldaduak kenduta.

*(Komandantea, Joanari mesfidantzaz begiratuta, irten egiten da)*

## LAUGARREN AGERRALDIA

*(Herriko plazan gaude. Apurka-apurka emakumez betetzen doa. Bazterrean, mahai batean soldadu bat dago, izenak hartzen. Albo batean emakume bikote bat dago, biak armatuak: Pantxike komandantea eta Victoria laguntzailea. Emakume guztiak mahaitik pasatu ondoren, soldaduak zerrenda ematen dio komandanteari)*

PANTXIKE: Ixo! *(Txilibitu bat joz edo txistu eginez isilarazten ditu denak)*  
Pentsetan dot hemen zagozen guztiak emakumeen batalloian izena emotera etorri zariela...

PERREJIL: Arraina salduten etorri da inor? *(besteei galdezka, lotsagaldu samar)*

PANTXIKE: Perrejil, hago isilik! Hau ez dona txantxetan ibilteko! Entzun dona?

PERREJIL: Baaai, komandante *(irribarre ironiko batekin)*.

PANTXIKE: Entzun danok: Ni, Pantxike Gonzalez batalloiko komandantea naz. Virginia Sabater, nire laguntzailea. Virginia, irakurri izenak. Zuok erantzun "presente".

VIRGINIA: Genoveva Gonzalez!  
Luisa Gonzalez!  
Patricia Arana!  
Cristina Kortina!  
Prudencia Renteria!  
Joana Gana!  
Concepcion Mardaras!  
Mikaela Maruri!  
Joana Garai!  
Telesfora Igartua!  
Ana Eguskiza!  
Rufina Sabater!  
Joana Arrarte!  
Geronima Kukullu!

*(Izenak esan ahala, interesatuak "Presente!" erantzuten du)*

Francisca Musaurieta!

PERREJIL: "Perrejil" etxean eta kalean.

PANTXIKE: Esan "presente" eta kitu!

PERREJIL: Preseeente.

VIRGINIA: Bonifazia Landesa  
eta  
Maria Laberia.

PANTXIKE: Hemen izena emonda dagozan guztiak, alarmea jotzen danean, atoan joan beharko dabe Azurtegiandora gure esanetara ipintera, gero

emongo jatzuen arma aldean daroazuela. Instrukzioa gaur bertan hasiko da. Virginia, ekarri karabinak!

*(Karabina bat eskuan, azalpenak ematen hasten da; laguntzaileak armak banatzen ditu)*

Orain aditu niri, ezer egin orduko. Holan kargetan da arma:  
Lehenengo, kartutxua atara  
Kartutxua hausi (*haginekin urratzen du*)  
Kainoian hustu  
Balea sartu  
Baketaz sakatu  
Amartillatu arma  
Pistoia karabinan ezarri  
Tiro egiteko gertu!

Orain goazen danok atzeko landara, tiro-praktikea egiten.

## **BOSGARREN AGERRALDIA**

*(Soldaduen eta jendeen joan-etorria, eskupeta eta kanoi-hotsa. Don Pedro azaltzen da, aztoraturik, beldur-ikaraz)*

DON PEDRO: ¡Ai madre! ¡Ai, ai ai! ¡Nos van a matar a todos!

*(Perrejilek etxera sartzten du gizon ikaratua, gordeleku moduan erabiltzeko eskainiz. Kanoi-hotsak jarraitzen du)*

PERREJIL: ¡Entrar aquí, kontxo!. ¡Desastre de hombre!

SOLDADU L4: Gobernadorea, guztiz inguratuta gagoz. Egia jeneralaren tropak ganean daukaguz. Bateriak leku goienetan ezarri dabez: Andra Marin, Barrikan eta Guzurmendin.

GOBERNADOREA: Jo alarma eta zagoze danok adi eta erne. Seguruenik Kastilaotik joko dabe eraso, handik plazara sartuteko arrakalea irekitzeko. Bialdu miliziak be puntu horretara, artilleriako beste pieza bategaz.

SOLDADU L4: Bai, jauna.

*(Soldadua irten egiten da. Joanak, albotik, elkarrizketa entzun du. Handik lasterrera Pantxike agertzen da, aldarrika:)*

PANTXIKE: Emakumeak armetara! Urbanak, erdu plazara armak hartuta!

*(Miliziako emakumeak, armaturik, plazara sartzten doaz pixkanaka, gehienak umeak dakartzatela. Joanaren eskuetan uzten dituzte haurrok bere etxean aterpea emateko)*

JOANA: Zuhur ibili, gero, Pantxike. Entzun dodanetik, zalaparta handieneko lekura bialduko zaitue. Jagon zaitetze, Jaungoikoarren! *(Aitaren egiten du)*

PANTXIKE: Egon trankil, laztana... eta jagon gure umeak.

*(Joanak, hunkiturik, baietz adierazten du buruaz eta haurrak batuta etxe barrura sartzten ditu)*

## **SEIGARREN AGERRALDIA**

*(Gudua hasi da. Miliziako emakumeek eta soldadu bik, Patxik eta Manexek, kanoi bat sartzten dute. Sua hasten da: kanpotik sarri egiten dute su, eskupetaz eta bonbaz; gotorlekutik ere beste horrenbeste, kanoitik eta urbanen karabinetatik... Zaurituak eta hilak alde bietan. Soldadu liberalek miresten dute emakume gudarien ausardia. Akabuan, karlistak nagusitzen dira eta hirian sartu, Egia jenerala buru. Laster liberalek amore ematen dute. Presoak hartzen dira. Zaurituak eta hilak erretiratzeari ekiten diote.)*

## ZAZPIGARREN AGERRALDIA

*(Mahai baten bueltan, Egia jenerala eta militar karlista bi; beste aldean, hiriko gobernadore liberala, miliziako urbanoen eta urbanen buruak, denak katibu, soldadu karlista armatuek zainduta)*

EGIA JENERALA: Egia jeneralaren aurrean zagoze, Karlos errege legitimoaren tropen burua. Zu zara erresistentziako tropa liberalen burua, Esparterok ezarritako Gobernadore militarra?

GOBERNADOREA: Bai, jauna. Neu naz gobernadorea.

*(Jeneralak Gobernadoreari galdetzen dio, zeinuz, gainerakoak nortzuk diren)*

GOBERNADOREA: Bera Felix Orue-Etxebarria komandantea eta jaun hau Nikolas Urrutia, alkatea.

EGIA JENERALA: *(Mespretxuz)* Eta zuek?

PEDRO: Urbanoen miliziako burua, Pedro Arekoetxea kapitaina.

PANTXIKE: Urbanen miliziako burua, Francisca Gonzalez komandantea.

EGIA JENERALA: Zer da hau? Emakumeak komandante, emakumeak armetan? Gerrea gizonen atazea da! Non dagoz zuen senarrak?

PERREJIL: *(Albo batetik)* Non dagoz zuen andrak?

EGIA JENERALA: Zer? Eroan marimutil lotsabako hori txarrikortara! Herri honek ordainduko dau ohitura onen aurka emakumeak erabilteagaitik!

PANTXIKE: Jaun jenerala: gure gizonak itsasoan dagoz, baina guk badakigu hareek barik etxea eta herria gobernetan. Karabina bat erabiltea ez da sareak konpontzea edo umeak eta zaharrak jagotea baino gatxagoa...

EGIA JENERALA: Asko da! Es deust ardura emakume batek zer pentsetan dauan. Lehenago be esan dot gerrea gizonen beharra dala! Eta zuok be *(gizon urbanoei atzamarraz seinalatuz)* jakin beharko zeunkie horrenbeste! Teniente: irakurri Gobernadoreari kapitulazioaren klausulak.

TENIENTEA:

1836ko otsailaren 25ean, Plentziak errendizinoa onartu eta sinatu egiten dau, uriaren aginte osoa Karlos errege legitimoaren armadari emonaz, eta kondizino honek onarturik:

Lehenengo: Soldaduak nahiz miliziano guztiak gerra-presoa deklaratzeko dira eta dagokion espetxera eroango dira.

Bigarren: Urbanak deritzen...

EGIA JENERALA: *(Orria eskutik kendu tenienteari eta berak ekiten dio irakurtzeari, enfasiaraz:)*

Bigarren: Urbanak deritzen miliziako emakumeak dirala-eta, zeintzuk gizon erreboluzionarioen exaltazinoa imitatu guran, guztizko galbide lotsagabea bezain zigorgarria erakutsi daben, era honetara zentzaraziko dira: preso eroateaz ganera 60.000 errealeko dirutzea ordaindu beharko dabe hogeita lau orduko epean...

PANTXIKE: Hirurogei mila erreal! Jauna, guk ez daukagu holango dirutzarik!

EGIA JENERALA: Ba, herriak ordaindu dagiala. Alkatearen ardurea izango da Plentziako jende dirutsuena hona ekartea ahalik lasterren. Eurek jarri beharko dabe dirua orain; mailegu bat izango da: agiri bat sinatuko deutse alkateak, aginduz Udalak dirua bueltauko deusiela.

ALKATEA: Udalak dirua bueltau? Noiz? Zelan? Herrian ez daukagu ezer, eta dana txikituta dago... Nondik atarako dau Plentziak dirutza hori?

EGIA JENERALA: Lurrak. Saldu zuen lurrak! Baten batek erosiko ditu.

*(Egia Jeneralak tenienteari papera itzulita, honek hurrengo puntuak irakurtzen ditu. Bitartean, eszenako argia eta soinua tabernara pasatzen dira, transizio moduan)*

Hirugarren: Buruzagiek eta ofizialek gorde ahalko dabez euren ekipamenduak

Laugarren: Gobernadoreak eratuko dau urian dagozen gerrarako gai, jantzi eta jaki guztien inbentarioa egitea eta entregatzea Karlos erregearen tropari

Bosgarren: Herria errespetau egingo da. Alkateak miliziako gizon eta emakume guztien zerrendea egingo dau...

## **ZORTZIGARREN AGERRALDIA**

*(Soldadu karlista batzuk sartzen dira tabernara. Batzuek ardo barrika edo zahagi osoa kentzen diote eskuartetik Joanari; beste batzuk kantuz hasten dira:)*

(...)

Eta tira eta tunba eta tira beltzari  
Eta tira eta tunba eta tira beltzari

Biba biba Don Carlos hura da gizona  
Biba biba Don Carlos hura da gizona  
Espainiko errege tokatzen zaiona  
Eta tira eta tunba eta tira beltzari  
Eta tira eta tunba eta tira beltzari

Don Carlosek emon dau errege berbea  
Don Carlosek emon dau errege berbea  
gura dauela gorde Jaunaren legea  
Eta tira eta tunba eta tira beltzari  
Eta tira eta tunba eta tira beltzari

*(Aldi berean, soldadu karlistak pasatzen dira batetik bestera, jendeari konfiskaturiko elikagai askotarikoak garraiatzen. Joan-etorri guztien erdian, abade*



*bat sartzen da eszenan. Patakon da, horrela mozturirik. Tabernako soldaduek errespetuz agurtzen dute)*

PATAKON (abade jantzita): Egun on.

SOLDADU GUZTIAK: Jaungoikoak emon.

JOANA: Egun on, abade jauna. Ez nekian Plentzian elizgizon barria geunkanik.

PATAKON: Ez naz eliz zereginetara etorri, ezpadaze familia kontu bategaitik.

JOANA: Kontrol zorrotzak ei dagoz urira sartuteko.

PATAKON: Bai horixe! Sargentu batek ez eustan sinistu gura Mungiako parrokoaren albokoa nazenik, baina Egia jeneralak dana konpondu dau: adeitasunez hartu dau elizaren ordezkari nazen hau. Nor izan neinteke, ba, holan jantzirik? *(Kapela erantzen duen unean, Joana ohartzen da nor dan)*

JOANA: Zu... Zu bai zu! Ausardia behar da, gero!

PATAKON: Ixo...

JOANA: Badakit nor zaran, ondo jakin be. Lasai, ez zaitut nik salatuko. Batzuk eta besteak baino ondraduagotzat zaukadaz.

PATAKON: Estimatusa dago, dama polit hori.

JOANA: Halan da guztiz be, Don Pedro halan lumaturik bide bazterrean ixteak penea emon deust...

PATAKON: Ez penarik euki holakoengaitik, zu lakoengaitik baino. Entzun dot miliziako emakumeena. 60.000 erreal horreek nork ordaindu ahalko ditu?

JOANA: Emakume koitadek ez behintzat. Herri osoari ipinitako zigorra eta zorra da. Plentziako aberatsenak behartu ei dabez dirua aurreratzera eta Udalak epe batean bueltau egin beharko deutesie.

PATAKON: Udalak nondik atarako dau, ba, dirua bueltan emoteko, xentimo bat be ez dauka-eta. Herria triskatuta dago, jakirik ez...

JOANA: Udalak bere lurak saldu beharko ditu. Aurreko gerraren akabuan Gazteluondo errotea saldu eban moduan, orain basoak saldu beharko: Andraka, Berreagamendi... eta Isuskitza. Baina trankil egon, aberatsak ez dira lotuko kobrau barik.

PATAKON: Hori... guk dirua hobeto banatuteko zeozer egiten ez badogu...

JOANA: Banatu? Zer darabilzu buruan? Zertan etorri zara soldaduz eta poliziaz beteta dagoan Plentzia honetara? Igarriten badeutsue Patakon zarana!

PATAKON: Etorri naz... dama honi bisita egitera.

JOANA: Eliztar jantziak ez deutsu kenduten emakumeenganako limurkeria. Une egokian etorri zara, herri bat zelan arpilatzen daben ikusi gura badozu. Aurrekoak lapurrak baziran, honeek lapurrago. Laster gose latza pasau beharko dugu...

PATAKON: Guk ez Joana, guk ez. Nigaz edo niretzat behar egiten badozu, hainbestean moldauko zara.

JOANA: Nik behar egin zugaz? Bidez bide ibiltera trabukoa hartuta, bidaiariak larrututen? Ezta, ezta...

PATAKON: Oi ez, ataza hori itxi neuretzat eta neure jendearentzat. Egin behar dozun gauza bakarra da zure ostatutik pasetan dan jende dirutsuaren barri emon niri. Aurrekoan legez, atara eiezu dirurik daroen, noiz eta nondik bidaiatuko daben... nik badaukadaz bitartekoak informazino hori nigana etorteko...

JOANA: Arriskua badauka horrek, baina... zer daukat nik galduteko?

*(Bat-batean, Don Pedro agertzen da, aztoratuta, itsuturik, zerura begira, kobazulo batetik irten balitz bezala)*

DON PEDRO: ¿Ya ha pasado? ¿Ya se ha acabado la guerra? *(Gero, soldaduei begira:)* Oigan, me pueden decir por qué se han cambiado de uniforme? *(Soldaduak jaiki egiten dira mehatxukor)* No, no, disculpen, si... son más bonitos que los de antes, yo, yo...

JOANA: ¡Don Pedro! ¿Dónde meterse usted?

DON PEDRO: En casa de Perrejil, tres días debajo de la escalera. ¡Y ella en la muralla con la escopeta pegando tiros como una Juana de Arco! ¡Creía que era el fin del mundo!

JOANA: ¿Y qué haser usted ahora? No poder salir de Plentzia, y sin pasaporte, gitxiago.

DON PEDRO: ¡Cierto! Y el caso es que tengo que cobrar unas rentas y llevárselas cuanto antes al señor Marqués.

PATAKON: Señor don Pedro: creo que puedo ayudarle, y lo haría encantado. Dada mi condición de eclesiástico no tengo problema alguno para entrar o salir de Plentzia. Puedo interceder por usted ante el jeneral Egia para que pueda usted acompañarme y así haríamos el camino juntos.

DON PEDRO: ¡Oh, qué gran atención por su parte, padre! No sé como podría pagárselo...

PATAKON: No se preocupe por eso. No me debe nada. Al contrario, ejem, prefiero hacer el camino en su compañía. Además, no tema por los bandoleros. Sé bien qué caminos frecuentan y cuento con amigos que nos escoltarán si es preciso.

DON PEDRO: Pues partamos cuanto antes.

PATAKON: ¿No tenía usted que hacer unos cobros primero?

DON PEDRO: Cierto, cierto. Espero recaudar todo hoy mismo y así podremos partir mañana.

PATAKON: Entonces, hasta mañana. Le espero al amanecer en la puerta de Artekale.

DON PEDRO: Hasta mañana, padre. Un millón de gracias. Oiga... ¿sabe que su voz se me hace familiar?

PATAKON: Será porque le inspiro confianza, hermano.

DON PEDRO: No sé, no sé...

*(Don Pedro badoa, pentsakor. Bitartean, Joana, elkarrizketaren lekuko izan dena, barreari eutsi ezinik dago)*

JOANA: Patakon, dekonari kendu...

PATAKON: ... eta ez dekonari emon! Joana, egin daigun erdi bana! E, zer dozu negarrez, dama eder hori?

JOANA: Badakizu zer dodan. Amorrua, etsipena. Ez ete dogu inoz burua altzauko, ez ete gara inoz bakean biziko inori gerra egin barik?

PATAKON: Gizonak gerra egin barik bizi daitezala asko eskatzea da. Karramarroari ez esan "hoa zuzen".

JOANA: Lehen frantsesak, gero espainolak, orain liberalak, orain karlistak...

PATAKON: Eta ehun urte barru batek daki! Joana: topa dagigun geure egiaren alde.

*(Zalantzazko une baten ondoren, Joanak aldartea aldatu eta kopa altxatzen du Patakonekin batera)*

JOANA: Bakearen egiagaitik!

PATAKON: Bakearen egiagaitik!

*(Iribarre mingotsez egiten dute topa, elkarri begira)*

AMAIA

## **OBRAREN NONDIK NORAKOAK**

Hemeretzigarren mende hasieratik gerrate batean bizi zen Euskal Herria: frantsestea, errealista-liberalena... eta orain beharbada krudelena eta mingarriena: karlisten eta liberalen artekoa. Gerrate guztiok kutsu zibila izan dute, kalteak eta ondorioak gehienbat herri xeheak pairatu dituelako eta euskaldun batzuk beste batzuekin aurrez aurre borroka odoltsuan jarri dituztelako.

1836 urtean gaude. Plentzia, gatazkaren hasieran karlisten esku izan bazen ere, orain liberalena da. Espartero jeneral liberalak hiria gotortu du, defentsak sendotuz. Hala ere, armada karlista, Egia jenerala buru, inguruan dabil eraso prestatzen. Hiru eguneko setio baten ondoren gudaloste karlistak, liberalak baino ugariago eta hobeto hornituak, hirira sartzen dira kanoi hotsean.

Plentzian miliziak izeneko gudalosteak eratzen dira, zibilek osatuak: Urbanoak (gizonezkoak) eta Urbanak (andrazkoak). Gudu labur baten ondoren, karlistak nagusitzen dira. Hainbat plentziar hil eta beste asko preso eramaten dituzte. Horrez gainera, kapitulazioaren ondoren, emakumeen parte hartzeagatik zigortuz isun handia ezarriko zaio hiriari, luzaroan zorpeturik utziko duena.

Bi pertsonaiak, baina, gerrako logikatik kanpo kokatzen dute euren burua.

## **SINOPSIK AGERRALDIZ AGERRALDI**

### **LEHEN AGERRALDIA**

Plentzian, Joana tabernariaren ostatuan, bezero misteriotsu bat sartzen da, bere burua ehiztaritzat aurkeztzen duena. Elkarrizketaren bitartez bata bestearekiko jakinmina eta erakarpena sortzen da.

### **BIGARREN AGERRALDIA**

Don Pedro, handiki baten administratzailea, Joanaren ostatuan azaltzen da, honi atzeratutako errentak kobratzera. Oraingoan ordaindu ezean, alde egin beharko du. Bezero misteriotsua egiten da zorraren kargu, trukean eskaera bitxi bat eginez Joanari.

### **HIRUGARREN AGERRALDIA**

Armada karlistaren eraso gertatzeaz denez, Urbanoen eta Urbanen gudalosteak eratzeko aldarria zabaltzen da. Hirian dauden soldadu liberalak harriturik daude, gaitzetsi egiten dutelarik emakumeen parte hartzea borrokan. Halako batean, Don Pedro agertzen da, haserre bizi, bi soldaduk helduta, bidean lapur talde batek den-dena ohostu diotela salatuz. Joanari esker identifikatzen dute. Tabernaria ohartzen da bezero misteriotsua izan dela lapurra: Patakon ezizenez eskualdean bandolerotza soziala praktikatzen duen bide-lapur ospetsua. Hala ere, Joanak ezjakinarena egiten du Gobernadorean aurrean.

## LAUGARREN AGERRALDIA

Urbanen izenematea bukatu ondoren, instrukzioa hasten da, armen erabilera-eta irakasteko. Dozenaka emakume prest daude hiria kanpoko erasotik defenditzeko. Urbanen artean, Pantxike komandantearen eta Virginia laguntzaileaz gain, Perrejil ezizeneko emakume ahobero eta lotsabako samarra nabarmentzen da.

## BOSGARREN AGERRALDIA

Lehenengo kanoikadak entzuten dira. Gobernadoreak aginduak ematen ditu hiriaren defentsarako. Miliziako emakumeek Joanaren esku uzten dute euren umeen zaintza. Honek ohartarazten ditu Gobernadoreak arrisku handieneko lekura bidali nahi dituela.

## SEIGARREN AGERRALDIA

Hasi da gudua. Miliziako emakumeek eta soldadu bik, Patxik eta Manexek, kanoi bat defenditzen dute. Sua hasten da: kanpotik sarri egiten dute su, eskupetaz eta kanoiz; gotorlekutik ere berdin, kanoitik eta urbanen karabinetatik... Zaurituak eta hilak alde bietan dira. Soldadu liberalek miresten dute emakume gudarien ausardia. Akabuan, karlistak nagusitzen dira eta hirian sartu, Egia jenerala buru. Liberalek amore ematen dute. Presoak hartzen dira. Zaurituak eta hilak erretiratzeari ekiten diote.

## ZAZPIGARREN AGERRALDIA

Hiriaz jabetu ondoren, Egia jeneralak eta teniente karlistak errendizioaren klausulak irakurtzen dituzte; horietako bat bereziki mingarria eta zitala da: emakume gerlariei zigor berezia ezartzen diete "gizon gisa" armak hartzeagatik: 60.000 errealeko dirutza erabat eskuraezina ordaindu beharko dute; eurek pagatu ezean, Plentziako Udala egin beharko da zorraren kargu. Erabaki horrek urteetan zorpetuta utziko du hiria, bere lur gehienak saltzea beste erremediorik ez duela zor handia kitatzeko.

## ZORTZIGARREN AGERRALDIA

Soldadu karlistak dira oraingoan Joanaren tabernan ordaindu gabe edanean eta aupadaka dabilzanak. Halako batean apaiz ezezagun bat sartzen da: Patakon da, mozorroari esker Plentziara sartzea lortu duena. Joanak laster ezagutzen du. Berriz ere Don Pedro azaltzen da, setio garaia Perrejilen etxean ezkutuan eman duena. Oraindik errenta batzuk kobratzeko asmoa dauka, baina beldur da ez ote dioten galaraziko hiritik irtetea, pasaportetik gabe baitago. Patakon-abadeak irteteko laguntza eskaintzen dio adeitsu, bai eta berarekin bidez bide joatea ere. Joanak ezin du sinistu zerenbestekoa den lapurraren ausardia eta abilezia. Bukaeran, etorkizunera begirako proposamen bat egiten dio Joanari, gerraren ildotik at herri xehearen zapalkuntza etengabea arintzearekin zerikusi duena.

## **ACERCA DE LA OBRA**

Desde principios del siglo diecinueve Euskal Herria vivía en continua guerra: la guerra de la Independencia, la que enfrentó a realistas y liberales... y ahora tal vez la más cruel y dolorosa: la que enfrenta a carlistas y liberales. Todas las guerras han tenido tintes civiles, porque los daños y las consecuencias los ha sufrido mayoritariamente el pueblo llano y porque han enfrentado a unos vascos con otros en una lucha sangrienta.

Estamos en 1836. Plentzia, que al principio del conflicto estuvo en manos carlistas, está ahora bajo el mando liberal. El general Espartero ha fortificado la ciudad, reforzando sus defensas. Sin embargo, el ejército carlista, con el general Egia a la cabeza, está tomando posiciones y preparando el ataque. Después de un asedio de tres días, las tropas carlistas, más numerosas y mejor equipadas que las liberales, entran en la ciudad tras abrir una brecha con su artillería.

En Plentzia se han formado las milicias, compuestas por civiles: Los Urbanos (hombres) y Las Urbanas (mujeres). Tras una breve batalla, se imponen los carlistas. Mueren muchos plencianos —también soldados carlistas—y llevan presos a otros muchos. Sin embargo, tras la capitulación, la ciudad tendrá que sufrir un castigo especialmente doloroso bajo pretexto de la participación femenina, dejando así endeudada a la villa durante mucho tiempo.

Sin embargo, hay dos personajes en la historia que se sitúan fuera de la lógica de la guerra.

## **SINOPSIS DE LAS ESCENAS**

### **PRIMERA ESCENA**

En Plentzia, en la posada de la tabernera Joana, entra un misterioso cliente que se presenta asimismo como un cazador. A través del diálogo entre ambos surge una curiosidad por conocerse y cierta atracción mutua.

### **SEGUNDA ESCENA**

Don Pedro, administrador de un magnate local, aparece en la taberna de Joana a cobrar a ésta las rentas atrasadas. Si esta vez no paga su deuda, tendrá que marcharse de la posada. El misterioso cliente, que estaba al acecho, se hace cargo de la deuda poniendo a Joana una extraña condición.

### **TERCERA ESCENA**

Ante el inminente ataque del ejército carlista, se hace un llamamiento para la formación de las milicias de las Urbanas. Los soldados liberales que se encuentran en la ciudad se asombran e indignan por la participación de las mujeres en la defensa armada.

De pronto aparece don Pedro, furioso, sujeto por dos soldados. Afirma que ha sido asaltado en el camino por una banda de ladrones. Gracias a Joana es identificado y puesto en libertad. La tabernera cae en la cuenta de que el ladrón ha sido el misterioso cliente de su posada: el famoso asaltador de caminos apodado Patakon, que practica el bandolerismo social en la región. Sin embargo, Joana finge no conocerlo, ante las sospechas del Gobernador.

#### CUARTA ESCENA

Finalizada la inscripción de las mujeres Urbanas, se inicia su instrucción para el uso de las armas. Decenas de mujeres están dispuestas a defender la villa del ataque externo. Entre las Urbanas destaca, además de la comandante Pantxike y su ayudante Virginia, una mujer bravucona y bastante descarada apodada Perrejil.

#### QUINTA ESCENA

Suenan los primeros cañonazos. El gobernador da las órdenes precisas para la defensa de la villa. Las mujeres de la milicia dejan a Joana al cuidado de sus niños. Ésta les advierte que el Gobernador quiere enviarlas al lugar de máximo riesgo.

#### SEXTA ESCENA

Empieza la batalla. Mujeres de la milicia y soldados, entre ellos Patxi y Manex, defienden la muralla. Desde el exterior hay un fuego intenso de escopetas y de artillería; en el interior intentan contener el ataque con un cañón y con las carabinas de las Urbanas. Hay heridos y muertos en ambos bandos. Los soldados liberales se admiran del valor de las mujeres guerreras. Al final se imponen los carlistas, que entran en la villa con el general Egia a la cabeza. Los liberales se rinden. Se hacen prisioneros y se procede a la retirada de muertos y heridos.

#### SÉPTIMA ESCENA

Después de la toma de la villa, el general Egia y un teniente carlista leen las cláusulas de la rendición; una de ellas es especialmente dolorosa y perversa: se impone una pena especial a las Urbanas por tomar las armas "como los hombres"; deberán pagar la multa de 60.000 reales, suma totalmente inalcanzable para ellas; en caso de impago, el Ayuntamiento de Plentzia deberá hacerse cargo de la deuda. Esta decisión dejará endeudada a la villa durante muchos años; para poder saldar la enorme deuda Plentzia se verá obligada a vender la mayoría de sus tierras comunales.

#### OCTAVA ESCENA

Son los soldados carlistas los que ahora arman bulla y beben sin pagar en el bar de Joana. Aparece repentinamente un cura desconocido: es Patakon, que gracias al disfraz ha conseguido entrar en Plentzia. Joana no tarda en reconocerlo. Vuelve a aparecer en escena don Pedro, que ha pasado el tiempo del asedio escondido en casa de Perrejil. Aún tiene que cobrar algunas rentas, pero teme que le impidan salir de la villa, debido a los controles y a que carece de pasaporte. El cura-Patakon le ofrece ayuda gentilmente para poder salir de Plentzia, y se ofrece para hacer con él el camino de vuelta. Joana se asombra por la audacia y la habilidad del bandolero. Al final éste hace a Joana una propuesta de colaboración mutua para el futuro, en el espíritu del bandolerismo social y al margen de las contiendas bélicas.